

itsasondo2.0

herriko aldizkaria 53. zk (martxoa 2023)

HITZAR, herria pizteko energia



▼ **Elkarrizketa:**
Joseba Aseginolaza

▼ **Herri batzarrak**

▼ **Herri Eskola kirolaren**
inguruko hausnarketa

aurkibidea

- 03-04 **Udaleko berriak**
- 05 **Haur eskola**
- 06 **Urkiye eskola**
- 07 **Guraso Elkartea**
- 08-09 **Gazteria**
- 10 **Bizi Nahi elkartea**
- 11 **Motzean**
- 12-14 **Hitzar, komunitatearen batzar nagusia**
- 15 **Natura**
- 16-19 **Elkarriketa: Joseba Aseginolaza**
- 20 **Irakurzaletasuna**
- 21 **Kirola**
- 22 **Herri batzarrak**
- 23-26 **Hemeroteka**
- 27 **Liburutegia / Errezeta / Euskararen atala**
- 28 **Agenda**

Sarrerako bertsoak

Duina:
Loreak udan ihintza bezala

Haur eskolatik abia dira altxorraren saski bila, irulegiko eskuarekin badator galdera pila, Santo Tomasko ospakizunak piztu du negu hurbila helduen festa txikientzat gozamen izan dadila.

Gaztediari zenbait tertuli literatura esparruan irudimena hedatzearren bakoitzak bere arloan hitzek dakarten energiari leku emanez ahoan irakurtzeko zaletasuna errotuz modu sendoan.

Jubilatuena zereginetan memoria, gimnasia esku tailerrak ta energiaren indarraren garrantzia, Josebarekin elkarriketa, Herri Batzarren berria irakurtzeko zaletasunez zabaltzen den iturria.

agurra



Urte berria konturatzerako iritsi den bezala, hala iritsi zaigu Itsasondo 2.0 aldizkariaren 53. zenbakia ere. Desiratzen egongo zarete gurean pasa direnak irakurri eta herriko berriei gozatzeko, ezta? Ekin diezaiogun irakurketari, bada!

Ale honetan irakurriko ditugunak negu giroko ekintzak badira ere, ez pentsa Itsasondon hotzik pasa dugunik. Ekintza mordoa eta hainbat zeregin izan dira herrian, eta ez dugu ez aspertzeko ez eta hotsa pasatzeko denborarik izan.

Haur-eskolakoei altxorraren saskiaz idatzi dute, bai ekintza polita; zertan datzan jakin nahi baduzue hurrengo orriak irakurtzea besterik ez duzue. Eskolakoei Santo Tomas ospakizuna izan zuten, eta jana eta galara ez ziren falta izan.

Egia esan aitortu behar dugu negua ingurukoekin bildu eta otordu oparoak egiteko urtaroa izan ohi dela... eta eskolakoei gain, honekin bat etorri da gazteek egin-dako talo jatea. Talogile bikainak dira gure herriko gazteak!

Herrian Hitzar Energia Komunitatea sortu berri da, eta honen berri ere izango dugu. Honez gain, elkarriketa laburra Estixuri egin zaio, Mugiment txartela zer den jakingo dugu eta EH Bilduk egindako 4 batzarren kronika irakurgai izango ditugu, besteak beste.

Lerro hauetan adierazitakoei gain bada-goz zer irakurria eta goza dezagun irakurketaz, Itsasondo!

Udaleko berriak

.....
Azken hilabeteetan egin diren udalbatzetan landutako gaiak aurkezten dizkizuegu.

Honez gain, jasotako dirulaguntza guztien berri ematen da.
.....

Azaroak 7, abenduak 15 eta abenduaren 27an bertan aztertutako gairik esanguratsuenak honakoak izan dira.

- 2023ko egutegi fiskalaren onarpena.
- 2023ko ordenantza fiskalen onarpena.
- 2021eko kontu orokorraren behin betiko onarpena.
- Hitzarmena Ordiziako udala, Gipuzkoako ur kontsortzioa eta Itsasondoko udala, Ordizia eta Itsasondoko hainbat baserrietako ur hornidurarako sarea finantzatzeko lankidetza-hitzarmena.
- Udal ordenantza, Itsasondoko udaleko langile publiko izateko hautapen eta probisio prozesuetan bitarteko elektronikoen bidez harremanak izateko betebeharra arautzen duena.
- 2023ko aurrekontuaren onarpena.
- 2023ko Itsasondoko udaleko lanpostu zerrenda eta plantilla organikoaren onarpena.
- Itsasondoko herri eskolako irakasle klaustroak aurkeztuta euskal eskola publikoaren aldeko idatzia.
- Kreditu aldaketak.

JASOTAKO DIRULAGUNTZAK

- EREIN 2022, Eusko Jaurlaritza, Itsasondoko Ur hornidura sarea, 2. Fasea, 104.997,54€
- Hondakinak eta Ekonomia Zirkularra, Eusko Jaurlaritza 21.846,93€
- Aste Klima, Eusko Jaurlaritza, 1.518€
- Natur Ondarea, Murumendiko Korredorea, Eusko Jaurlaritza 39.497€
- Liburutegia, funtsak, 417€
- Liburutegia, irakurzaletasuna, 1.179€
- Osakidetza, mediku etxeko mantentzeko gastuak, 7.782,48€
- Eskola Agenda 2030, ikastetxean egindako ekintzak, 666€



ITSASONDOKO UDALAREN 2023KO AURREKONTUA

SARREREN AURREKONTUA

Zuzeneko zergak	147.300€
Zeharkako zergak	2.000€
Tasa eta bestelako sarrerak	100.000€
Transferentzia arruntak	668.000€
Ondare sarrerak	15.200€
Inbertsio errealeen besterenganaketa	0€
Kapital transferentziak	277.500€
Finantza aktiboak .	0€
Finantza pasiboak .	0€
Guztira	1.210.000€

GASTUEN AURREKONTUA

Pertsonal gastuak	429.500€
Ondasun arruntak eta zerb.	285.400€
Finantza gastuak	1.200€
Transferentzia arruntak	122.900€
Kreditua	0€
Inbertsio errealak	336.000€
Kapital transferentziak	0€
Finantza aktiboak	0€
Finantza pasiboak	35.000€
Guztira	1.210.000€

2023ko aurrekonturako aurreikusitako inbertsio nagusiak ondorengoak dira:

- Baserrietako ur hornidura sarearen II. Fasea.
- Ingurune naturala terreno erosketa.
- Nagusia kalean erositako lokalaren 2. zatiaren ordainketa.
- Herri bideetan egin beharreko konponketa lanak.
- Eskola berriaren proiektua udalak egin beharreko urbanizazioa.



Altxorraren Saskia oso proposamen polita eta aberatsa da haur txikientzat. Haurrari eserita egoten den unetik (6-12 hilabete) eskainiko diogu esplorazio joko hau.



Helduaren lana begiratzea izango da, hau da, behaketa. Ez du haurren esplorazioan parte hartuko. Komunikazioa begiradaren bidez egingo da. Helduak haurra distantziatik ezagutzeko aukera izango du. Liskarrak gertatzen badira, denbora emango diegu euren artean konpontzeko, baina adi egongo gara kalterik egin ez dezaten.

Haurrak saskian dauden objektuak aukeratu eta manipulatatu ahal izango ditu. Saskian daqoen materiala ohi-

koa den arren, oso aberatsa eta erabilgarria da jokorako, haurren zentzumen guztiek (ukimenak, dastamenak, usaimenak, ikusmenak, entzumenak,...) parte hartzen baitute. Hauek izan daitezke: anana-buruak, maskorrak, arropa-pintzak, eskuilak, koilara edo espatula, helduleku txikiak, larruzko zorroa, tenis-pilota, giltzak, kateak, ispilu txikia, etab. **Ez dugu plastikoa den ezer bertan sartuko.**



Gure herriko ohituretako bat berreskuratzeko aukera ederra izan zen egun hau, eta aurreantzean ere, Urkipe herri eskolan ohitura hau ospatzen jarraitzea espero dugu urtez urte.

Irulegiko eskua

Irulegiko eskua burdinaroko Irulegiko
aztarnategian aurkitu zuten iaz,
zenbait zientzialariren laguntzarekin



SHΔMHME · M
s o r i o n e k u · {n}

DMEEΔEJSJDD · E
t e n e k e b e e k i f a t e f e [n]

HTM · X · ESEDA · M
o T i f t a n · e s e a k a f i

E · D · A · X · M ·
e f a u k o n ·

Kristo aurreko 1. mende-
koa da, eta "signario bas-
koniko espezifiko" batean
idatzia dagoela ondorioztatu
dute. Hizkuntza baskonikoa
izan daitekeen zerbait trans-
kribatuz, eta transkripzio hor-
rretako hitzetan, lehena argiki
euskalduna delarik: *sorioneku*.
Zorionekoak denok, aurkikun-
tzarekin.

Eskua 2021eko ekaina-
ren 18an aurkitu zuten, Leire
Malkorra induskatzaileak iku-
sia lehenbizi, eta beste pieze-
kin batera entregatua, uztaila-
ren 13an. Indusketa bideoan
grabatu zuten, eta piezaren
kokapen topografikoa zehaztu,
gainontzeko material guztia-
rekin egin bezalaxe. Hala ere,
2022ko urtarrilaren 18ra arte
ez zuten jakin piezak idazkunik
zuenik, non Nafarroako Gober-


nuko errestarautzaile Carmen
Usuak idazkunak antzeman
zituen.

Aurkikuntza iragarri zene-
tik, urtariletik, hainbat iker-
tzailek aztertu dute testua,
eta lehen ondorio bateratue-
kin aurkeztu, Arangurenen.
"Hizkuntza baskonikoan"
idatzita dagoela esan dute.
Lehen hitza bakarrik ulergarri,
oraingoz. Idazkera iberikotik
gertu dago, baina desber-
dintasunak ditu, hala nola, T
forma duen zeinu bat, fone-
tikoki ez dakitena zeren al-
daera den, baina ageri dena
Nafarroako bi txanpon baskoi
zaharretan. Iberoeak alfabeto
erdi-silabiko bat erabili zuten,
eta haren aldaera honi "signa-
rio baskoniko" deitu dio Javier
Velaza antzinako Iberiako
hizkuntzen adituak.





Tertulia literarioetan
landuko dituzten
liburu batzuk.



TERTULIA LITERARIOAK

Lehengo urtean, herriko zenbait boluntarioen laguntzarekin, abiatutako egitasmoari jarraipena eman nahi izan diogu aurtengoan ere. Eskolatik, zein guraso elkartetik, jakinarazi zaizuen bezala, boluntario bila ibili gara 5. eta 6. mailako ikasleekin saio hauek antolatzeko.

Itsasondo 2.0-ko 51. zenbakian, luze eta zabala, azaldu genuen tertulia literarioak zer diren, eta orain, modu laburragoan bada ere, gogora ekarri nahi ditugu zenbait azalpen:

Irakurzaletasuna sustatzeko ekintza izateaz gain, tertulian parte hartzen duten ikasleen ikuspegi zuzena sustatzen da, adinaren, generoaren, kulturaren edo gaitasunaren bereizketarik egin gabe. Tertulia batean, sentimenduak, ideiak, sentipenak eta bizipenak azaldu behar dira.

Lanketa honetan, eraldaketa bat gertatzen da ikasleengan eta boluntarioengan, eta pertsona, ulerkeragoak eta kritikoagoak sortzen dira. Tertuliaren funtzioetako bat ahotsa ematea da, elkarrikeria bat sortzea, eta inoiz ez zalanztan jartzea inongo iritzirik edo ideiarik.

Iaz egindako saioek izandako arrakasta dela eta, aurtengoan ere erronkari eutsi diogu. EHUKo magisteritzako ikasleak izango ditugu saio hauek gidatzen. Bide batez, beraiek ere praktika hauetan trebatzeko aukera izango dute.

Saioak egun eta ordu hauetan izango dira, astelehenetan 17:00etatik-18:00etara:

Otsailak 13, 27
Martxoak 13, 27
Apirilak 17, 24
Maiatzak 8, 22
Ekainak 5, 19

ESKOLA KIROLA

Eskola kirolak zenbait buru-hauste eman dizkigu Itsasondoren azken urteotan. Pandemiaren geroztik ez dugu modu egokirik bilatu, herrian eskola kirola gauzatzeko.

Gazteri foroan, aurtengo ekintza planean, gai hau lehen-tasunez lantzekoa dela adostu da, eta nola eutsi diezaiokegun aztertzen egon gara.

Lehenik informazio ezberdina jaso nahi izan dugu, gure tankerako herri txikiak ea eskola kirola nola gauzatzen duten jakiteko. Eskolakoek, Goierri bailarako eskolako zuzendari-tza taldean partekatu dute gaia. Iturri Txiki guraso elkarteko ki-deek, eskola txikien taldean gal-detu dute, eta azkenik udal ordezkariek Gaztematika sarean eta Oinherri Herri Hezitzaileak sarean egin dute kontsulta.

Jasotako informazioarekin, aukerak eta ahulguneak mahai gainean jarri ditugu, baina jakitun gara honek herri mailako eztabaida edo hausnarketa bat beharrezkoa duela. Horrela bada, jada Oinherri Herri Hezitzaileak sareko ki-deek hainbat herritan horrelako hausnarketa burutua dutenez, beraiegana zuzendu gara laguntza eske. Beraiek egindako lanketa proposamena oso egokia iruditu zaigu eta bi saio egitea adostu dugu.

PROPOSAMENA

Eskola Kirola gogoeta kolektiborako tresna honek, lanerako markoa eta metodologia eskainiko dizkio prozesuari. Saio guztiak dinamika parte hartzaileen bidez burutuko genituzke, elkarlanerako konfiantzazko gune goxo bat sortzea ahalbideratuz.

1. SAIOA:

Non gaude?

MARTXOAK 1, 17:30ean,
Kulturgunean

Lehen saio honetan, egun Itsasondon daukagun eskola kirol ereduaren inguruan hausnartuko dugu. Indarguneak eta ahulguneak identifikatuko ditugu. Non gauden definitu eta nora joan nahiko genukeen zehaztuz.

- Udalaren kokapena. Saio hauek antolatzearen arrazoiak eta prozesuarekin lortu nahiko lukeenaren inguruko azalpen laburra.
- Aurkezpen erronda: Izena eta txikitako eskola kiroleko oroitzapena. Behin izan ginen haur haiekin eta bizi izan genuen eskola kirola esperientziarekin konektatzeko dinamika.
- Zer da "Oinherri", zergatik amaitzen dugu EKGKTa (Eskola Kirola gogoeta kolektiborako tresna) sortzen.
- Taldeko dinamika. Talde txikitik bloke bat aukeratu eta galderak landu.
- Plenarioa (zer aldatu nahiko genuke Itsasondoko eskola kirolean).
- Itxiera + hurrengo saioarako planteamendua + balorazio jolasa.

2. SAIOA:

Nora joan nahi dugu?

MARTXOAK 29, 17:30ean,
Kulturgunean

Elkarrekin, nolako eskola kirol ereduia izan nahiko genukeen amestuko dugu. Lehenengo saioan identifikatutako ahulguneak/korapiloak, erronka bilakatuko ditugu elkarlanean. Datorren ikasturtetik aurrera, aldaketak sartzeko helburuarekin.

- Aurreko saioa freskatu.
- Nolako eskola kirol ereduia izan nahiko genuke Itsasondon: Amets kolektiboa eraiki.
- Ametsetako eskola kirol hori eraikitzen hasteko, zein erronkatatik abiatuko gara.
- Erronka hori plangintza batera ekarri: egitekoak, egutegia, ardurak...
- Plenarioa.
- Itxiera + balorazio jolasa.



TALO EGUNA

HERRIKO GAZTEAK HERRIARENTZAT JOLASAK PRESTATZEN

Ohiko datetatik atzeratu bada ere... ospatu dugu Talo jatea urteroko legez!

Gaztelekuan ez gara geldirik egon eta talo jatearen betiko formatuari gure alea jarri nahi izan diogu, izan ere, aurreko jolasak antolatu ditugu herriko haurrentzat.

Jolasen antolaketa azaroan hasi genuen, Euskararen Egunerako beharko genituelakoan. Azkenean albo batera utzi izanagatik ere ez geunden ahaztuta, eta talo jatea egingo zela jakitean jolasak berreskuratzea erabaki genuen.

Idea gehiago jaso genituen lehen-dabizi, egitea gustatuko litzaizkiguen jolasak zerrendatzeko.

Oinak lurrera ekarri eta testuingurura moldatu ditugu ideiak, ez baikenekien zenbat hurrek hartuko zuten parte, ez eta zein adinetakoak izango ziren. Horregatik, jolas ireki eta moldagarrienak aukeratu genituen.

Guztira 6 jolas genituen prestatuta:

- Hitzezko eta eragiketazko erreleboak
- 3 baietz!
- Paraxutarekin 3 ezberdin: baloiarena, koloreena eta marrazoarena
- Harri orri har

Umeak gerturatzeko joan ziren heinean, jolasak hasi genituen. Lehenengo harri orri har jolasa egin genuen, 3 baietz jolasarekin jarraituz eta jolasak paraxutarekin bukatu genituen. Earki pasa genuen!!!

Ea errepikatzen ditugun!!!

Gainera jolasekin bukatzean prest genituen herrikoek egindako taloak. Hau bai sari ona jolasetan egindako gosea baretzeko!




Dependentziaren aurre zaintzarako programa

Itsasondoko 65 urtetik gorako pertsonen zuzenduriko adinekoen estimulazio saioak jarri ditugu martxan, ongizate taldeko kideak, udalaren laguntzarekin.

Oro har ematen ari den populazioaren zahartzeak, autonomia galtzearen handitze bat suposa dezake. Geroz eta urte gehiago bizi, orduan eta aukera gehiago izango ditugu gure kasa moldatu ahal izateko ahalmena galtzeko. Aktibitatea eta mugimendua gutxitzean egoera fisikoa eta gaitasun kognitiboa ere okerrera joan daitezke.

Honek guztiak, motibazio eta konfiantza falta ekar ditzake eta gure helduen bizi kalitatea nabarmen gutxitu dezake. Pertsona hauen bizi kalitatea hobetzeko beharrezkoa da autonomia suspertzea eta baita bakardade egoerak ekiditea ere.



Aipaturikoak kontuan izan da, Itsasondoko Udaletik beharrezkoa ikusi da hauek landuko lituzkeen programa bat martxan jartzea; arrazoi kognitibo eta fisikoez gain, herriko adinekoak elkarren artean erlaxionatzeko aukera ematen duelako.

Orain arte egin ohi den memoria tailerrari jarraipena emango diogu, baina, aurrean Lahar enpresako dinamizatzailerak batekin egingo ditugu saioak.

Aktibitate desberdinak egingo dira: giza-ekintzak eta pertsonen arteko erlazioak sustatu nahi dira; estimulazio kognitiboa, oroimena, arreta, pertzepzioa, elkarketa, eta esku terapiak egingo dira. Haez gain, prentsa saioak, aisia jarduerak eta erlaxazioa ere landuko dira.

Asteazkenero bilduko gara, Bizi-nahi elkarteak, 16:30etik 18:00etara. Saioak urtarilla-maiatza bitartean izango dira, eta 25€ balio ditu.

2023 IKASTURTEA

16:30-18:00 Pertsona Nagusiekin
ESTIMULAZIO SAIOAK

MARTXOA											
		1	2	3	4	5					
6	7	8	9	10	11	12					
13	14	15	16	17	18	19					
20	21	22	23	24	25	26					
27	28	29	30	31							

APIRILA											
							1	2			
3	4	5	6	7	8	9					
10	11	12	13	14	15	16					
17	18	19	20	21	22	23					
24	25	26	27	28	29	30					

MAIATZA											
		1	2	3	4	5	6	7			
8	9	10	11	12	13	14					
15	16	17	18	19	20	21					
22	23	24	25	26	27	28					
29	30	31									

Estitxu Irisarri Egia



Han eta hemen bizi ondoren,
orain dela bi urte eta hiru hilabete
iritsi zen Itsasondora. Batzuetan
dinamismoaren falta sumatzen duen
arren, lasaitasuna eskertzen du.

Non bizi zinen lehen?

Nire jaioterria Elgoibar da, baina Gasteizen, Bilbon, Bordelen eta Baionan bizi izan naiz.

Zergatik erabaki zenuen

Itsasondora bizitzera etortzea?

Lanak ekarri ninduen Goierriara, Elgoibartik joan-etorriak astun egiten zitzaizkidanez, Goierriin zerbait bilatu nahi izan nuen. Aukera handirik ez zegoela iruditu zitzaidan eta Lazkao, Ordizia eta Itsasondoren artean, Itsasondok irabazi zuen, inguru lasaia goa eta naturalagoa iruditu baitzitzaidan.

Zer duzu gogoan etorri zinen lehen egunaz?

Egia esan, lehen eguna pisua bisitatzera etorri nintzenekoa izango zen eta ezer gutxi daukat buruan herriaz. Halere, behin instalatuta, herritar batek egin zidan bisita gidatu paregabea beti dut gogoan eta bihotzean. Hainbat informazio eta txokoren berri eman zidan eta izugarri eskerku nuen.

Zein lanbide daukazu?

Ikasketaz, euskal filologoa naiz eta esperientzia luzeena euskararen irakaskuntzan dudana arren, begirale, zuzentzaile eta itzultzaile ere izan naiz. Halere, gaur egun langabezia nago. Noranzkoak aztertzen eta bizi-tza geldoaz gozatzen.

Itsasondoko zer ez zaizu gustatzen? Eta zer duzu gustuko?

Gustatzen zaidana eta ez zaidana gauza bera izan liteke momentuaren arabera: lasaitasuna eta dinamismo maila. Batzuetan lasaiegia iruditzen zait, baina beste batzuetan, erritmo hori gustatzen zait.

Zein zaletasun dituzu?

Yoga, crossfit, lagunekin kontu-kontari aritzea, naturan ibiltzea, telesailak eta filmak deskubritzea, harrapatzen nauten liburuak irakurtzea, etab.

Janari bat?

Bakarra? Hori galdera jatea gogoko duen batentzat... Txipi-

roiak tintan ikaragarri gustatzen zaizkit, baina horrekin bakarrik ez dakit bizi ahalko nukeen!

Edari bat?

Ura, infusio goxoak egin ahal izateko, eta, nola ez, barazki-zopak egiteko!

Itsasondoko edo Goierriko txoko bat?

Oianguren, Murumendi eta Urkia ikaragarri gustatu zitzaizkidan; halere lehenagotik ezagutzen nuen Txindoki da garaile sailkapen horretan.

Zerk sortzen dizu irribarrea?

Umoreak, muxuek, besarkadek eta beste baten barreak edo irribarreak. Musukoak estali zituen irribarreak, eta horrek aho eta hortz alaiek nire bizitzan duten garrantziaz gogoeta eginarazi zidan.

Itsasondon biziko ez bazina?

Goierriin? Beharbada Lazkaon. Galdera zabalagoa bada, Zumaian, Itziar inguruan edo amaren jaiotetxean.

Hitzar, komunitatearen batzar nagusia

Otsailaren 9an egin du Hitzar Energia Berriztagarrien Komunitateak bere lehen batzar nagusia, Kulturgunean. Batzar irekia izan da, eta egun komunitateko kide diren herritarrekin zein izateko asmoa dutenekin bildu gara, orain arteko ibilbidea azaltzeko eta aurrera begirako pausuen berri emateko. Bertaratutakoek informazioa jaso eta euren zalantzak argitu ahal izan dituzte.



lusio handiz eta helburu zehatz batekin sortu genuen Hitzar, 2022an: Itsasondoarrok ditugun energia beharrak asetzea; eta epe luze batera eta ahal den neurrian, herritarrek behar duten energia herrian bertan ekoiztea, hau da, energia burujabetza lortzea. Kontsumo eredu arduratsuagoa eta jasangarriagoa helburu, herrian energia sortzeko eta kontsumitzeko beste eredu baten bila hasi ginen, 2022ko urte hasieran. Herrian sortzea eta kontsumitzea posible delako!

Erronka potolo horiek buruan, hainbat hilabetez lanean jardun dugu herritar talde batek, eta orain arte egindako bidea aurkeztu nahi izan genien otsailaren 9an Kulturgunera etorri ziren herritarrei.

Auzolana eta talde lana da Hitzar kooperatibaren lan tresna, eta ahalik eta herritar gehien kooperatibara batzea da gure apustua, erronka handiei aurre egiteko denon indarra beharrezkoa delako, eta askoz ere arinago eta errazagoa egiten de-

lako lana, askoren artean egiten bada.

2022ko urte amaierarako kooperatiba eratu genuen, 43 bazkiderekin. Aurrerantzean, norbanako eta enpresa gehiago taldera ekartzea da gure nahia.

Batzarrean argitu zen moduan, hiru lan talde edo lan lerro daude Hitzar kooperatiban:

- 1. Proiektugintza:** energia berriztagarria eskuratzeko proiektuen lanketa egingo duen taldea.
 - 2. Kudeaketa:** zeregin administratiboak eta juridikoak eramango dituen taldea. Kooperatibaren diru kontuak eta alderdi tekniko eta juridikoen jarraipena egiteko taldea.
 - 3. Komunikazioa:** besteak beste, kooperatibaren berriak zabaltzeko, bazkideak lortzeko estrategiak eta bazkideekin komunikazioa landuko duen taldea.
- Lan talde horiek sendotzea ezinbestekoa da Hitzar indartu dadin eta gure helburuak bete daitezen: herria energiaz hornitzea.

NOLA EGIN BAZKIDE

Gaur egunera arte, 43 bazkidek osatzen zuten Hitzar komunitatea: gehientsuenak, herritarrak. Haiekin batera, udala eta herriko bi enpresa dira hitzarkide.

Bazkide egiteko, 20 euroko gutxieneko ekarpena egin behar da urtean. 20 euro horiez gain, inork ekarpen boluntariorik egin nahi badu, badu aukera. Borondatezko ekarpen horiek kooperatibako ekarpenen erregistroan jasotzen dira.

Oraindik ez bazara bazkide eta interesa baduzu, jakin ezazu hainbat bide dituzula horretarako:

- 1. Itsasondoko Udaleko webgunetik**
(www.itsasondo.eus atariaren barruan, Itsasondo ezagutu atalean dago Hitzar komunitateari eskainitako leihoa).
- 2. Kaxintane tabernan zein Itsasondokoop dendan** dauden eskuorriak beteta.
- 3. hizar@itsasondo.eus helbidera email bat bidalita.**





Iraolako ustiategiko plaken kokapena.

IRAOLA BASERRIKO USTIATEGIKO PROIEKTUA

Martxan da Hitzar komunitatea, eta lehen proiektuari itxura ematen hasi gara jada: Iraola baserriko ustiategiaren teilatuan plakak jartzea.

Proiektugintzako lan taldeak herriko hainbat teilatu aztertu ostean, plakak jartzeko aukera ona eta bideragarria Iraolakoa dela baloratu du, eta aukera horri heldu diogu.

Goiener kooperatibak eta Krea enpresak egin dute proiektuaren gaineko azterketa, taldeak hala eskatuta. Proiektuaren bideragarritasun tekniko eta azterketa horrek eman dituen datuak aurkeztu genizkien batzarrera etorritakoei. Ateratako datuen arabera, teilatuaren azaleran (213 metro karratu) plaka fotovoltaikoak jartzeko aukera dago: 78 plaka. 35,64 kw sortuko direla kalkulatu zuten da.

Datu ekonomikoak ere kalkulatu dira: egin beharreko inbertsioa, urteko gastuak eta kuotak, urteko batz besteko aurrezpe-

ta eta proiektua finantzatzeko lor daitezkeen diru laguntzak ere aurreikusi dira.

Bazkide bakoitzak duen kontsumoaren arabera, hainbat talde egin dira, eta zehaztu da talde bakoitzak zenbateko hasierako inbertsioa egin beharko duen eta urteko kuota eta onura zenbatekoa izango den.

Zuk ere jakin nahi al dituzu zure aukerak proiektu honetan? Bidali mezua hitzar@itsasondo.eus helbidera. Ez ahaztu zure azken faktura eta nortasun agiria ere bidaltzea mezuan.

Faktura entregatzeak ez du esan nahi proiektuarekin inolako konpromisorik hartuko duzunik, hau da, ez du esan nahi proiektuan parte hartu behar duzunik. Baina kalkuluak ahalik eta zehatzenak izateko ezinbestekoa da bazkideen argindar fakturak biltzea eta aztertzea.

Martxoaren 16rako deitu da bazkideen hurrengo batzarra. Batzar horretan erabakiko dira Iraolako proiektuaren hurrengo pausak.





UDAL ERAIKINETAKO TEILATUETAKO PLAKAK

Itsasondoko Udalak 2020an jarri zituen lehen plaka fotovoltaikoak, udaletxeko teilatuan. Eta egun, udal eraikinean gastatzen den energiaren %25 plaka horiek ekoiztutakoa da. 2021ean, Errota frontoiko teilatuaren bi aldeetan jarri ziren plakak: 120, denera. Urtero ia 200 kWh energia ekoiztuko dutela aurreikusten da. Eta oraintxe, Ibaiondo industrialdean udalak duen pabiloiaren teilatuan jarri dira eguzki plakak. 10 kWh energia ekoiztuko dute urtean.

Frontoiko plakak ez daude oraindik martxan. Instalazioak konexio eta oniritzi guztiak jasota baditu ere, Iberdrolak du azken hitza: hark eman behar du energia ekoizten hasteko edo isurtzen hasteko baimena.

Itsasondoko Udala Hitzar Energia Komunitateko kide da hasieratik, eta aspalditik adierazi zuen moduan, egun, udalarenak diren plaka horiek guztiak Hitzar komunitatearen izenean jartzea da asmoa. Orain arte jarritako plakak EEETik (Euskal Energiaren Erakundea) zein Diputaziotik emandako diru laguntzekin jarri dira.

Legez, baina, urte batzuk igaro behar dira lagapen edo titularitate aldaketa hori egiteko. Behin, ezartzen den denbora igaro ostean, Hitzar komunitatearenak izatera pasako dira orain arte udal eraikinetan jarritako plakak, eta komunitateak erabakiko du plaka horietatik ekoiztutako energia nola banatu.



Itsasondoko baserri-aurzoak: Urkiko itzulia

Herria ezagutzeko bere txoko
eta gailurretan ibiltzea
bezalakorik ez dagoela eta,
oraingo honetan goiz pasa
ederra egiteko moduko
ibilbide bat
deskribatzera goaz.

Udala zorua txukuntzen
eta ibilbide motzeko (PR)
marra hori eta zuriz mar-
gotzen ari da, mendizale orok
egiteko moduan jartzeko.

Itsasondoko baserri ingurue-
tan barrena goatzeko aukera
ematen digun itzuli bat presta-
tu dugu. Era guztietako basoak
eta zuhaitziak ikusteko, ikuspe-
gi apartak miresteko (eguraldi
argia medio) eta, ibili-ibilian,
inguratzen gaituen natura ar-
nastu eta larruazaletik barne-
ratzeko, barruak astindu arte.

Eta mendeetan zehar iraun
badu ere, belaunaldi gutxitan,

gure begi-bistan, ezkutatzen ari
den kultura baten lekuko izate-
ko suertea ere gurekin eraman-
go dugu. Baserriak, bordak,
ermitak, karobiak, belardiak
eta soroak, dantza-lekuak, ha-
rrobiak,... Gure arbasoen bizi-
modua amesteko mugari lana
eskainiko digute.

Horretarako, beheko plazatik
abiatu eta eskaileretan gora
ertotxe aurretik pasa ondoren,
Urkiko bidea hartuko dugu,
pista malkartsuan, espezie
desberdinak eratzen dituzten
zuhaiztien itzalpean Urkiko
erreka gurutzatu arte. Alda-
pan gora Urkiko baserriak eta
zelaia igaroko ditugu plazara
iritsiz. Hemendik, Larrazkanda-
ra doan bide aldapatsua hartu
eta ibilbidearen puntu gorenera
iritsiko gara.

Larrazkandan Zumaiatik
Lizarrustira doan GR-35-aren
marka zuri-gorriekin bat egin-
go dugu, loiako baserriak pasa
eta Sarobe gainean ezkerretara
hartu arte; marra gorriek Or-
diziara jaitsiko baikintuzkete.
Hemendik Sarobeko baserriak
gurutzatuz Iraolaetxeberriko
bidea hartu, eta baserrira iritsi
aurretik beheantze doan gur-
dibidea hartzea bakarrik gera-
tzen zaigu. Hemendik, Izarren
aldamenetik, behera oso zuzen
jaisten da berriro ere Itsason-
doko kaleetara iritsi arte.

Esteka honetan ikusi daiteke
ibilbidea:

[https://eu.wikiloc.com/
ibilbide-senderismo/
urkiko-itzulia-122146321](https://eu.wikiloc.com/ibilbide-senderismo/urkiko-itzulia-122146321)

Joseba Aseginolaza

**Bergaran jaio zen eta
Itsasondon bizi da.**

.....
Euskal herria osoan dantzan ibili
ondoren, motorrean
zeharkatzen ditu orain ibilbide
ugari. Zaletasun zaletasun,
Itsasondon gustura bizi dela dio
Bergaran jaioak.
.....

Nola gogoratzen duzu zure haurtzaroa eta gaztaroa?

Ba tira, haurtzaroan ikastolan hasi nintzen, Bergarako ikastolan, eta han EGB egin nuen eta gero institutura, baina 14 urterekin ikasketak utzi egin nituen eta lanean hasi. Bihurri samarra nintzen eta... Aitarekin hasi nintzen lanean, tailerrean.

Ikasketak euskaraz egin zenituen?

Ez, erdaraz. Orduan erdaraz ikasi beharra izan genuen. Garai hartan ikastolan klaseak erdaraz ziren, bagenuen euskarako klasea, baina beste guztia erdaraz ematen genuen. Umetan asko hitz egiten genuen euskaraz, baina gero erdarara jo eta euskara ahaztu genuen. Gerora Itsasondora etorri nintzenean bizitzera, semea dela eta, euskara berreskuratzea lortu dut.

Hona etortzean, euskara desberdina, ezta?

Bai guztiz, eta ulertzea kostatzen zitzaidan. Komunikatzeko arazoak. Pixkanaka-pixkanaka Goierriko euskara ikasi dut, orain hobeto moldatzen naiz.

Lanean 14 urterekin hasi zinen...

Bai, aitarekin hasi nintzen koxe konponketan, 14 urtekin; eskolan baino gusturago.

Beste afizio bat ere eduki zenuen, ezta?

Bai, euskal dantzak. Arratsaldetan ikastolatik atera eta jolasera joaten ginen, baina bat-batean kuadrillakoak dantzak ikasten hasi ziren, eta denak hala hasi zirenez, baita ni ere. Zazpi urterekin hasi eta 14-15 urtez aritu nintzen. Ber-

garan, Moises Azpiatzuk, lan handia egin zuen alor honetan, eta berarekin ikasi genuen. Inguruko herri guztietan, Euskal Jaiak antolatzen ziren, eta han biltzen ginen talde guztiak: ez-pata dantza, banako, binako, zinta dantza, txakarrankoa, aurrekua, eta abar. Egun guztian dantzan. Giro oso polita eta jatorra egoten zen.

Taldeko dantza utzi eta solteko dantzan hasi ginen. Hau serioago hartu genuen eta txapelketetan hasi ginen, beste sei edo zazpi urtez. Txapelketa askotan lehiatzen ibili ginen.

Hainbat lekutan dantzatu genuen, adibidez, elizetan, inaugurazioetan, lehendakariari, Santa Agedako etxean, mojen komentuetan... Bergaran klausurako mojak zeuden eta bertara ere joan izan ginen. Kurioso zen bertara joatea. Klausurako mojen eliza kanpotik bakarrik ezagutzen genuen, barrura sekula ezin zen sartu, bakarrik dantzatzerako joaten ginenean. Elizara sartu eta mojek ere gu ikusteko aukera izaten zuten sareta edo burdin saretik; guk ez genituen ikusten. Bestela oso zaila zen beraiekin egotea, oso pozik hartzen gintuzten. Anekdotak moduan, garai hartan mojek debekatuta zeuden ikurrinak egiten zituzten, eta guk balkoietan jartzeko erosten genituen.

Arrasateko psikiatrikoan, Santa Agedan ere dantzatu izan dugu. Han bi eszenatoki egon ohi ziren, bata emakumezkoena eta bestea gizonezkoena. Lehenengo gizonezkoen agertokian dantzatu genuen, denak

txaloka, oso txintxo. Ondoren, emakumeen eszenatokian askoz ere emozio gehiagorekin hartu gintuzten. A ze iskanbila! Dantzatu eta etxera beldurtuta. Hau guztia 14 urterekin edo... Esan bezala, zazpi urterekin hasi nintzen dantzan eta 21 urterekin utzi nuen. Soldaduska egin eta gero, urtebetez jarraitu nuen, baina gero utzi egin nuen. Nire bikotea Donostian hasi zen ikasketak egiten, eta egunero-egunero entseatzea oso zaila bihurtu zen.

Oso lotua da hortaz dantza, ezta?

Bai, oso. Egunero-egunero ordubete entrenatzen genuen eta asteburuetan txapelketak edo emanaldiak. Ordu asko sartu behar dira bikotearekin koordinatuta aritzeko dantzan. Baina oso-oso gustura aritzen ginen. Eta gure irakaslea ikaragarria zen, eta asko lagundu gintuen. Oso landuta, eta zezoz nahi baduzu ondo egin, lan asko egin beharra dago.

Gurasoak aspertuko zenituzten...

Bai, hara eta hona ibiltzen gintuzten. Euskal Herri osoa ezagutu zuten. Nire semea dela eta, niri antzerako zerbait gertatzen zait orain futbolarekin. Nire gurasoei ere gertatu zitzaien, baina dantzarekin. Txapelketa guztietara etortzen ziren, gustura.

Dantzaren munduak asko eman dizu?

Bai, bai. Dantza exigentea da, baina asko eman dit.

Euskal Herriko txapelketa zer da Segurakoa?

Bueno, txapelketak herri guz-



1982an Segurako EHko txapelketan 3. geratu ziren. Karlos Garaikoetxea sariak banatzen.



Alcañiz 1990ean 3. na egin zueneko.



Bere dantza bikotearekin beste lehiaketa batean.



Lehiaketetan erabiltzen zuen auto bat.

tietan izaten ziren, baina Segurakoa zen garrantzitsuen. Euskal Herriko Dantza Txapelketa Nagusia 14 urtetik gorakoentzako izaten da. Bertara iristeko sailkatu egin behar zen aurretik.

Izan zinen Seguran, sailkatuta. Zer moduz?

Ba ondo. Garrantzitsua zen guretzat. Jende oso ona zegoen, eta asko entseatzen genuen bertara joateko. Bost aldiz edo joan nintzen.

Podiumean izan zinen noiz-bait?

Behin hirugarren, beste behin laugarren, bosgarren... 15 bat bikote klasifikatzen ziren txapelketarako, eta joan ginen

guztietan egin nuen dantza finala.

Bikote asko ibiltzen zineten dantzan?

Bai asko. Donostiatik, Lezotik, Azkoititik, Bergaratik... etortzen ziren. Baina Segurara bizkaitarrak, arabarrak... ere bai. Hau berrikuntza bat izaten zen, izan ere, bizkaitarrek zein arabarrek desberdin egiten zuten dantza, eta epaimahaiarentzat arazo bat izan zen hau, egokitu beharra izan zuten.

Ordubeteko entrenamenduak?

Bai, normalean bai, baina Segurako txapelketarako askoz gehiago. Erakutsi ere egiten genuen entrenatzeaz gain, guri

erakutsi ziguten bezala. Azkean ordu pilo bat sartzen genituen.

Eta mutiko asko zineten?

Ba hori, hasieran bai, baina gero askok eta askok utzi egiten zuten, beste zaletasun batzuk, badakizu; futbola, ikasketak...

Eta nolatan utzi zenuen dantza?

Soldaduskaren ondoren urtebete jarraitu nuen, eta gero utzi.

Zenbat urte daramatzazu Itsasondon?

33 urte, bizitza erdia. Maitasunagatik etorri nintzen. 89an hasi nintzen nire bikotekidearekin eta ordudanik hemen bizi naiz.



1981an Segurako EHko txapelketan
5. Eli Galdosekin.



Moises Azpiazu dantza maisuarekin,
1980an. Goran ezkerrekoa Joseba.

Baduzu beste zaletasunik?

Bai, motorzalea izan naiz betidanik. Dantza utzi ondoren kotxe karreretan hasi nintzen, autokrossean lehenengo. Hauek ilegal samarrak ziren, desguazeko kotxe bat hartu eta han ibiltzen ginen hara eta hona. Horretan asko ikasi nuen, baita gozatu ere. Gero R5 GT turbo bat erosi nuen kalean ibiltzeko, eta harekin bero-bero eginda, karreretan hasi nintzen. Sei urte edo eman nituen karreretan. 88an Espainiako mendi lasterketan parte hartu nuen, eta, 89an eta 90ean zirkuituetan ibili nintzen, Renault-eko kopa nazionalen.

Rallyetan bikote ofizialik ez nuen, lagun batekin eta besterekin ibiltzen nintzen. Asistentzia gure artean egiten genuen, eta aita ere nirekin ibiltzen zen.

Dirurik mugitzen da mundu horretan?

Diru asko behar da mundu horretan. Suertea baduzu babesleekin bai, baina bestela oso zaila da. Mekanikoak izanda, aita eta nik egiten genituen konponketa guztiak.

Eta gurasoei ez zien beldurrik ematen?

Bai, baina gustuko zuten beraien ere... Askok lagundu ninduten. Ama ere zalea zen, nire andrea ere zalea da...

Zenbat urtez?

1985ean edo hasiko nintzen lehenengo karreretan, 1990 arte.

Istripurik izan al duzu?

Zortea izan dut eta ez dut ezer zalapartatsurik izan. Gure garaian ez zen istripu larririk gertatu nire inguruko artean behintzat.

Motoan ibiltzea ere gustatzen zaizu, ezta?

Bai, orain horretan ibiltzen naiz. Gustuko dut. Goiz pasa joaten gara, eta kilometro batzuk egiten ditugu. Asko disfrutatzen dut, suabe-suabe ibiltzen gara. 14 urterekin erosi nuen nire lehenengo motoa Bultaco Sherpa bat eta aitarekin mendian ibiltzen nintzen, trialera bat zen. Igandero-igandero buelta bat ematen genuen motoz. Karreterako motoak ere beti gustatu izan zaizkit, baina ikus-teko, karrerarik eta ez.

Gaur egun non egiten duzu lana?

Esan bezala 14 urterekin aita-ren tailerrean hasi nintzen lanean, eta bertan aritu nintzen 1997 arte. Gero Goierriara etorri, eta orain Indar enpresan lan egiten dut.

Amets bat?

Bai, gitarra elektrikoa jotzea.

Itsasondon gustura bizi zara?

Ni oso gustura nago. Batez ere lasaia delako da, eta jende jatorria dagoelako.



Mediku etxeko
aldizkari altzariak.



Kaxintaneko aldizkari
altzariak.



Jubilatuetakoa aldizkari
altzariak.



Gaztelekuko aldizkari
altzariak.

Irakurtzeak mundura zabaltzen gaitu

Irakurketa batzuentzat denbora libre betetzeko ekintza aberasgarria den bitartean beste batzuentzat denbora galtze bat da. Haurretan ere, nabarmena izaten da irakurketarako zaletasuna desberdina dela; batzuk begiak handi-handi eginda egoten dira hizkien bidez sortu duten mundu magikoan barrena, beste batzuentzat eskolan edo etxean agindutako lan aspergarria da.

Irakurtzea ona dela inork ezin du ukatu, ikerketa ugari burua garatzeko aktibitate ona dela ondorioztatu dute; oraintxe bertan, zu irakurle, garunaren ezker hemisferioa aktibitate indartsu batean duzu sarturik, hainbat area aktibo dituzularik. Hona hemen zenbait onura:

1. Irakurtzeak burua garatzen du eta kontzentrazioan laguntzen du.
2. Hitz egiteko gaitasuna garatzen du. Irakurketak hiztegia, sintaxia eta gramatika hobetuz laguntzen du, eta horrek era egokiagoan hitz egiten lagundu digu.
3. Testuetan barrena ibiltzeak garapen intelektualean eragina du. Aipatu bezala, hemisferioan aktibitatea sortu eta area ezberdinak lanean jartzen ditu.

4. Besteak ulertzeko kapazitatea ere areagotzen du irakurketak. Kontestu ezberdinetan barreiatzen garenez besteak ulertu eta sentitzen ditugu, enpatia garatuz.

5. Mediki ikerketek irakurtzeak etorkizunean gaixotasun neurodegeneratiboak saihesteko aukera ematen duela ere ondorioztatu dute; alzheimerra, parkinsona, eta abar izateko aukerak gutxitzen omen ditu.

Abantaila hauez gain, irakurtzeak gizarte gisa ere aberastzen gaitu. Irakurriz gero, pentsatu egingo baitugu; pentsatzen badugu gizarte hobe bat amestuko dugu, eta mundu hobe bat amesten badugu hori lortzeko bideak eraikiko ditugu.

Itsasondoko udal liburategiak urrats berriak eman nahi ditu herritarren irakurzaleta-

sun sustatzeko. Ohikoa da gure kultur agendaren barruan, irakurketara motibatzea helburu duten hiruzpalau ekintza programatzea; haurrei zein helduei zuzenduriko ipuin kontaketak, argitaratu berri diren zenbait libururen aurkezpenak, idazleekin tertuliak...

Hauetz gain, urtean zehar liburu erosketak egiten dira. Durangoko azokan salduenak izan diren tituluak izan dira eskuratu ditugun azkenak. Zenbait aldizkarietako harpidedun ere bagara; Argia, Goiberri, Pikara Magazine, Aizu, Bertsolari, Gaztezulo, Pirenaika, Euskal Herria...

Aldizkari hauek liburutegiko apaletatik atera eta herritarren eskura jartzeko asmoz, lau liburu-altzari erosi dira herriko gunetako ezberdinetan jartzeko. Otsailetik aurrera, Kaxintane tabernan, mediku etxean, Bizi-nahi elkarteetan eta Gaztelekuan topatuko dituzue aldizkari hauen aleak.

Gozatu irakurketaz!

Egun, Itsasondoko herriak ez du kirol azpiegiturarik (frontoiaz gain). Egoera hau aldatzea, bada udalaren erronketako bat, baina lehentasunak lehentasun beste proiektu batzuei eman zaie bide; herriko parkea berritzea eta denda handitzea.



kiroltxartela
mugiment



KirolTxartela Mugiment

Hauiek herriari onura egingo diotela jakitun da udal taldea. Aztertzen hasiak dira, ordea, herrian zein zerbitzu eskaintzea egongo litzatekeen eta kirola egiteko makineria non kokatu daitekeen...

Dena den, Itsasondoko herriar asko aldameneko herrietako bazkide dira, eta bertako kide izatearen abantailetak baten berri eman nahi dizuegu. Egun, beste herrietako bazkideak zaretanok gozatuko ahalko duzue eskaintza honez, baina baita etorkizunean herrian kirol instalazioetako bazkide egiten direnek ere.

KirolTxartela Mugiment

Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako proiektua da. Beraien herriko kirol instalazioak eskaini eta atxikitako udalerriekin bate-

ra kirol jarduera sustatzeko doako eskaintza da.

Txartel birtuala da, KirolTxartela Mugiment APPa baino ez da instalatu behar. Google Play eta App Storen dago, eta zure mugikorrean ikusi ahalko duzu zein udalerrietara joan zaitezkeen, jada kirol instalazio batean bazkide zaren heinean.

Udalerri bakoitzeko harpidedunak beste udalen kirol instalazioetara sartu ahal izango dira, gastu gehigarriarik gabe, udal bakoitzak ezarritako erabilgarritasunaren arabera. Hau da, udalerri bakoitzak zein kirol-gune (kiroldegia, frontoiak eta igerilekuak) eskainiko di-tuen, eta zein ordutegiren barruan erabili ahal izango diren zehaztuko du APPan.

Egun 141 kirol instalakuntza daude erabilgarri udalerri hauetan: Santurtzi, Portugalete, Ortuella, Trapagaran, Zierbena, Abanto-Zierbena, Sestao,

Barakaldo, Muskiz, Arrasate, Bergara, Oñati, Amurrio, Laudio, Ugao-Miraballes, Bakio, Arrigorriaga, Basauri, Etxebarri, Bermeo, Erandio, Gernika, Lemoa, Sopela, Durango, Berriz, Elorrio, Sondika, Zamudio, Lekeitio, Mungia, Markina-Xemein, Mundaka, Ermua, Eibar, Soraluze, Elgoibar, Mutriku, Mendaro, Deba, Zumaia, Zestoa, Getaria, Zornotza, Bilbo, Azpeitia, Orío, Urduliz, Zumarraga, Derio, Legazpi, Abadiño, Larrabetzu, Getxo, Gorliz, Galdakao, Beasain, Ondarroa, Ordizia, Lezo, Orozko, Zalla, Gueñes, Igorre, Leioa, Balmaseda, Urretxu, Maruri, Urduña, Vitoria-Gasteiz, Iruña Oka, Ataun, Ezkio, Zegama, Segura, Agurain, Tolosa, Oiartzun, Ormaiztegi eta Villabona.

Berehala atxikitzeko borondatea azaldu du Donostiako Kirol Patronatuak ere.

Aukera paregabea da hortaz, kirola egiteko beste arrazoi bat!

Etorkizuneko Itsasondo zirriborratzen

Urtarrileko azken astean egin ditu EH Bildu alderdiak herri batzarrak, herritarren iritzia, kezak eta proposamenak jasotzeko helburuarekin. Orotara, lau batzar egin dira, eta hamaika proposamen bildu dira.

Herritarren kezak eta proposamenak gaika biltzeko helburu zehatzarekin, lau batzar antolatu dira: Ingurune Bizigarriak, Herri-Kohesia, Bizimodu duinak eta Etxebizitza eta energia.

Guztira, 43 pertsonak parte hartu dute batzarretan, eta jendetsuenak, azken biak izan dira: Bizimodu Duinak eta etxebizitzaren ingurukoak.

Batzar horietan, Itsasondo eder bat amestez gain, hurrengo urteetan ezinbestean landu beharko diren gaien lurreratzea egin da, herritarrekin batera; konplexuak eta zailak izanagatik, jorratu beharreko arloak zehaztu dira batzar horietan. Zentzu horretan, aurrerago zehetasun handiagoz azalduko badira ere, azpimarratzekoak dira ondorengoak: etxebizitzaren gaia, berrien zein zaharren kasuan; Beko Kaleren egoera orokorra; herriaren irisgarritasuna edota herriartar guztion parte-hartzea.

Bada azpimarratu beharreko beste kontu bat: hainbat jubilatuen eta euskaraz ez dakiten zenbait herritarren parte-hartzea. Adinekoen kasuan, euren errealitatearen berri emateaz gainera, lanerako prest daudela adierazi dute, eta oso pozgarria da hori; eta euskaraz ez dakiten herritarren kasuan, gure erosotasunetik aterazi gaituzte.



Azken horien kasuan, batzarraren parte hartzeko erabakia hartu izanak, aldi bereko itzulpena egitera derrigortu gaitu. Itzulpenak egiteko profesional baten zerbitzuak ordaindu ezinak, gu geu jarri gaitu lan horietan. Horretarako, Euskal Herriko mugimendu feministak aspalditik erabiltzen duen teknikaz baliatu da: belarrira xuxurlatzearena. Hartara, aldi bereko itzulpen profesionala ez izan arren, euskaraz ulertzen ez duten herritarrek ere batzarretan parte hartzeko aukera izan dute, kalitate berean ez bada ere.

Gainerako batzarretara jende gehiago animatzea da gure hurrengo erronka. Alta, oraindik normalizatzea lortu ez den beste erronka tekniko haur-zaintzarena da. Ea hurrengo batzarretarako bi zerbitzuak emateko gai garen: itzulpenarena zein haur zaintzarena.

Batzar hauekin ez dira, baina, zereginak amaitu. Oraindik asko dugu egiteko eta asko dugu erabakitzeko. Hurrengo hilabeteetan ere lanean jarraituko dugu zuekin guztiekin, modu batera edo bestera, maiatzaren aurkeztuko dugun herri-programa osatzen.

Zerrendak osatzeko lanetan

Itsasondoko EH Bildu martxan jarri da, herritar guztiekin batera hurrengo agintaldiko erronka nagusienak zehazteko lanetan. Horretarako, pasa den ikasturteko batzarretako diagnostikoa abiapuntutzat hartu, eta banan banako elkarrizketekin osatuz joan da.

Lehenik, iazko abenduan, orri bat banatu zen etxeko etxe, pro-

posamen zuzenak eta alkate zein zinegotzi izan litezkeen pertsonen izenak jaso asmoz. Gauza jakina da hamar lagunek baino hogeik ideia hobekak dituztela, eta, are gehiago, 30, 40 edo 50 lagunek. Ideia eta izen zaparrada jasotzea izan da etxeko etxeko banaketaren helburua, eta esanguratsuak izan dira emaitzak: 50 proposamen zehaztetik gora eta 45 lagun izenak jaso dira.

Pixkanaka-pixkanaka, hasi da zerrendan aipatu diren pertsona horiekin guztiekin elkarrizketa sakonak izaten, eta esan behar da emaitza uste baino hobea izaten ari dela. Herrian EH Bilduk duen antolakuntzaren inguruko proposamen baliagarriak jasotzeaz gain, herritarrek herriaren alde, herria hobetzeko eta guztion ongizatearen alde egiteko prestutasuna azaltzen ari baitira.

Hala, elkarrizketa horiek guztiak eginda, Itsasondoko EH Bilduk aurkeztuko duen alkategaia Iñaki Aizpuru izango da. Haren esperientzia eta agintaldi honean martxan jarritako proiektuei jarraipena ematearen alde egiten baitugu herritarrok. Iñakirekin batera, eskuz esku, batzordeetan lanean arituko diren pertsonak ere baditugu: alkateorde-lanak egiten jarraituko duen Nagore Etxeberriak. Ongizate batzordean arituko den zinegotzia oraindik zehaztu gabe badugu ere, taldeak berak martxan jarri duen prozesuaren emaitza positiboa izango delakoan gaude. Laster jakinaraziko da maiatzeko udal hauteskundetara aurkeztu diren herritarren zerrenda osoa.

Hemeroteca

ASTEKLIMA (irailak 39 - urriak 3)

Aurten ere Aste Klimarekin loturiko zenbait ekintza antolatu ditugu. Zure mundua plateran asteen da dokumentala ikusgai izan genuen Kulturgunean. Honez gain, Ekirock-eko lagunak izan genituen beraien txirrinduak energia nola sortzen zuten azaltzen.



TXIRRINDULARITZA PROBA (urriak 2)

Gipuzkoako Federakuntzak, ziklo kros teknifikazio proba egin zuen Elordiko zelaian eta Lizardiko bi-degurutze aldameneko zirkuituan. Partaide ugari bildu zen hitzorduan.



MAITE FRANKO IPUIN KONTALARIA (urriak 7)

Beti da ongi etorria gurean Maite Franko eta oraingoan ere ez genion hutsik egin hitzorduari. Haur talde handia eta adin desberdinetakoak bildu ginen eta moldaerak egin behar izan zituen bere erreperatorioan. Gustura egon ginela bistan da, kantuan amaitu baikeuen haur zein heldu.



UEMAKO SAIOAK (urriak 17, 24)

Euskararen erabilera, eta herriko haurrek eta gazteek kontsumitzen dituzten komunikabideen inguruko azterlanak emaniko datuak partekatu nahi izan zituzten UEMAKO kideek herritarrekin. Saio honez gain, eskolan ere egin zituzten kontzientziazio saio desberdinak.



FESTETAKO BIDEO EMANALDIA (urriak 21)

Herriko jaiek eskaini zizkiguten momentu ahaztezinak gogoratzeko, argazki eta bideo bilduma bat proiektatu zen Kulturgunean. Herritar asko gerturatu ziren emanaldira. Bertan, zozketa pare bat egin ziren; lehena, argazkiak bidali zituzten herritarren artean, eta bigarrena, ikusleen artean. Argazki dendan erabiltzeko opari bonua eta liburu dendan erabiltzeko opari txartelak izan ziren zozkatu ziren sariak.



TXIKIREN BAKARRIZKETA (urriak 21)

Pintxo poteari amaiera emateko modu hoberik ba ote da? Ion Martinez, Txiki izan genuen frontoian bere bakarrizketa umoretsua eskaintzen. Jende andana bildu zen eta giro ezin hobea egon zen. 40 urte eta aldapan gora nitxek zen bakarrizketaren gaia, eta askok eta askok kontatzen zituen pasarteetan irudikatzen zuten beraien burua. Horrek algara ugari sortarazi zituen.



URTEBETETZE FESTA (urriak 21)

Herriko txikiak beraien urtebetzeak elkarrekin ospatzeko aukera izan zuten. Iraila eta urrian zehar urteak bete zituzten haurrek eta euren lagunek ospakizunerako beta izan zuten frontoian eman antolatu zen askarian. Irene Carrasco, Mohamed Benakba, Jon Pellus, Aiora Solis eta Inhar Iraola izan ziren hilabete horietan urteak bete zituzten haurrak. Urteaskotako!



JUBILATU BAZKARIA (urriak 23)

Herriko txikiak ez dira bakarrik ospakizunetarako elkartzen direnak. Herriko jubilatuek ere hitzordua izan zuten Nautiko tabernan. Bazkariak gain beraien kide zaharrenei omenaldia egin zieten; Felipa Otegi Arza eta Ignacio Maria Gorostidi Zuaznabarrek opari bana jaso zuten egin zitzaizkien aitortzan. Oso eskertuak azaldu ziren biak. Egun oparoa izan zuten herriko erretiratuek.



GAU BELTZA (urriak 31)

Aurten ere arimak berpiztu dira herriko kaleetan. Iluntasunak, apaingarriak, giro bustiak... apartekoa bilakatu zuten gau beltza. Ipuinak, sustoak, kontakizunak... eta partaideek jarritako gogoia eta motibazioak sortu zuen gau magikoa.



URKIKO ASTEBURU MIKOLOGIKO- MAGIKOA (azaroak 5, 6)

Urkiko aterpeko ohe guztiak bete zituzten Urkiko asteburu magikoan parte hartzeko deialdiari erantzun zieten lagunek. Asteburuak ekintza ugari egiteko parada eskaini zigun; perretxikoak bilatu, mikologia gunera bisita, mikologiari buruzko hitzaldia, Kaxintanek eskaintako hamaiketako dastatzea... 2023rako badira gorde beharreko bi data: maiatzak 13, 14 eta urriak 27 eta 28. Orduan izango dugu aukera berriz asteburu magikoez gozatzeko.





"KORAPILOAK" BETZAIDA URTAZAREN NOBELA AURKEZPEAN (azaroak 9)

Lehengo urtean "Maisha" liburuarekin izan genuen gurean eta aurtan gai ugari eta anitzak lantzen dituen bere lana aurkezten egon zen Betzaida Urtaza, Legorretarra. Ondoez psikologikoa, bere buruaz beste egitea, harreman zailak... jaso ditu bere liburuan. Oso gustura egon ginen kafe eta gozoen bueltan tertulian.



MENDI IRTEERA ETA GAZTAINA JANA (azaroak 16)

Itturri txiki guraso elkarteak antolatu zuen urtero egin ohi den gartzaina jana. Aurrez, mendi irteera laburra egin zuten herriko familia batzuk eta frontoira gerturatu ahala hasi ziren jo ta su lanean. Uste baino jende gutxiago bildu zen, giroa ez baitzen lagun, hala ere egon zirenek ederki pasa zuten gartzainak dastatuz.



JOSTAILU AZOKA (azaroak 18)

Egoera zaurgarrian egon daitezkeen familiei baliabideak eskaintzeko asmoz, ongizateko lantaldeak bultzaturik, jostailu bilketa azoka egin zen. Bildutako jostailuak, gizarte langilearen bitartez, erakunde zein familia desberdinetara bideratu dira.



GOTZON IZQUIERDO, RAFA ETA DANI BENITEZEN LANEN ERAKUSKETA (azaroak 14-20)

Itsasondon ere badela artista ugari! Kuadroak, makilak, egurrarekin egindako lan anitzak... denetarik izan genuen ikusgai kulturgunean. Bide batez, 2023ko egutegiko argazkiak bozka herritarraz aukeratzeko parada izan genuen. 36 bozka ezberdin jaso ziren eta horiek erabakiorrak izan ziren egutegia osatuko zuten argazkien aukeraketan.



EMAKUMEEN INDARKERIAREN AURKAKO ELKARRETARATZEA (azaroak 25)

Emakumeen indarkeriaren aurkako nazioarteko egunean, Itsasondoko herritarrek ere bat egin nahi izan dute aldarriarekin eta plazan egin dute elkarretaratzea. Irmoki adierazi nahi izan dute, ez dela herri askerik izango emakume askerik gabe. Emakume erasotu bat bera ere gehiago ez izateko lanean jarraitzek konpromezua berretsi dute.

KANTU AFARIA (azaroak 25)

Nola galdu urteroko zita "Kuxkuxtu" txarangako lagunekin? Giro aparta, jende ugari, afari mundiala eta kanturako gogoa ez ziren falta izan. Aurten-gorako jada jarri dugu hitzordua, ez kalerik egin! Giroa ziurtatua dago!



OLENTZERO ETA MARIDOMINGI (abenduak 24)

Urtero legeaz hemen izan ditugu Olentzero eta Maridomingi. Opariak ekarri dituzte eta esker ona adierazteko, Arbelaitz elkartearen hamaiketako eskaini diegu. Giro polita izan dugu, pandemia osteko elkarketa jendetsuenetakoa izan da. Poza ematen du herriko kaleak bizirik ikustea!



GABONETAKO EKINTZAK:

AURPEGI- MARGOKETA (abenduak 26)

Deialdiaren berri ez zutelako edo Gabonetako oporretan lo gehiago egiteko aprobetxatzen dutelako, 3 haur besterik ez ziren azaldu.

BUZTIN TXURI TAILERRA (abenduak 28)

17 hurrek parte hartu zuten, hurrez izena eman zutenaz gain beste haur batzuk azaldu ziren. Tailerra adin tarte zehatz bati zuzendurikoa zen, egoki egin ahal izateko gaitasun batzuk bereganatuak behar zirelako. Haur txikiago batzuk parte hartu zuten, eta hauei arreta handia eskaini behar izan zitzaizkien. Artistek lan bikainak egin zituzten!

AFARI MERIENDA GAZTELEKUAN (abenduak 30)

Urteari amaiera elkarrekin emateko asmoz gaztelekura gonbidatu genituen nerabeak. Zazpi lagun gerturatu ziren. Afalduko zutenaren zerrenda egin ostean, erosketak egin eta sukalde lanetan hasi ziren. Bapo afaldu zuten, giro onean!



7G Udalekuak



El mundo después
Sandra Labastie

Amatu Maite Lopez de las Heras



Zerak
Yolanda Arrieta

Esan Gabe doa



Sex-sua
Karlos Aretxabaleta

Bestalde



Luaren itzala
John Andueza

Susmaezina



Put
Nelly Arcan



Errezeta

Puntalette risotto faltsua barazki eta ahatearekin

Osagaiak: puntaletteak, ahate, iztertxoak, gari, zainzuriak, perretxikuak, tipulina, ziazerba, baratzeria, ahate, urdaiazpikoa eta esnegaina

Lapiko batean, olio txorota jarri, bertara baratzuri xehetu pixka bat gehitu, eta ondoren puntaletteak bota. apur bat erregosi ondoren, urarekin busti arroz bat izango balitz moduan. 10-12 minutu bitartean egosi, ondoren lapikotik atera, eta ur hotzetan atera, makarroiak balira bezala.

Tipulina xehetu, eta zartagi batean jarri gozatu arte, hau prest daukagunean, aurrez ebakitako perretxikoak gehitu, eta bertan salteatu prest utzi arte. Beste alde batetik, gari zainzuriak zatitu eta zartagi batean salteatu, ondoren perretxikoekin nahastu eta bie salteatu azkar bat eman.

Ahate iztertsoei azala eta hezurra apartatu, eta haragia xehetu ondoren, aurreko nahasketari gehituko diogu. Ondoren, lapiko batean jarri eta esnegaina botako diogu. berau apur bat irakiten eduki zapore guztiak ondo nahastu daitezen. Jarraian gatz puntua eman eta azkenik puntaletteak eta ziazerbak botako ditugu. 2-3 minutuan su bajaran nahastu eta prest izango genuke. ahal bada krematsu puntuan utzi. Bukatzeko, lagungarri gisa, ahate urdaiazpikoarekin osatu platera.

Euskara txukuntzen

EUSKARA MAKARRONIKOA

Ez dut astia.
Ettxerarte lagunduko dizut.
Beti egin behar dut.

EUSKARA TXUKUNA

Ez dut astirik.
Ettxeraino lagunduko dizut.
Beti egin behar izaten dut.

Mañeru eremu mistora pasatzearagotzi dute PSN eta Navarra Sumak


Mañeru eremu "ez euskaldunetik" mistora pasatzeko eskaria egin du aho batez udalbatzak urtarrean, eta horretarako Nafarroako Parlamentuan gehiengoaren babesa behar du. Bozketa egin dute, eta bertan behera gelditu da udalbiltzaren nahia, PSNek eta Navarra Sumak aurka bozkatu dutelako. Bi alderdiek aurreratua zuten ez zutela baimenduko Mañeru eremu mistora pasatzea, eta horren aurrean, Mañeruko alkatetik "haserre eta inpotentzia" azaldu ditu. Aldaketaren alde bozkatu duten alderdiek -Geroa Bai, EH Bildu, Ahal Dugu eta Izquierda Ezkerra- PSNren koherentzia falta salatzen dute, bai-larako gainerako 40 herri baino gehiagok eremu mistorako saltoa egin baitzuten 2017an: "Zergatik Mañeruk ez?", aurpegiatu diote Parlamentuan piztu den hika-mikan.

Mañeruko haurren hiru laurdenak D ereduaren ikasten dute Garesen, eta Euskarabideak egindako inkesta baten arabera, herriararen bi herenek eremu mistora pasa nahi dute. Ezezkoaren aurrean, elkarretaratzea egin zuten Nafarroako Parlamentuaren kanpoaldean Euskararen Defentsarako Sareak deituta. Euskaingintzaren Kontseiluak ere babestu du, eta euskarafobia salatu dute.

Kuriositateak

Askotan hitz egin da erdarak euskaraz izandako eraginaz, baina oso gutxitan euskarak erdal hizkuntzan izandakoaz.

Alud, angula, akelarre, bacalado, cencerro, chabola, changuro, chapela, chatarra, chirila, chistera, cococha, izquierda, muñeca, mus, ordago, patxaran, pelotari, pitarra, sirimiri eta zurrón bezalako hitzak, gure egunerokoa askotan erabiltzen ditugu erdaraz hitz egitean, baina hitz guzti horiek euskal jatorria dute. Euskarak azken mendeetan inguruko hizkuntzekin izandako erlazioen ondorio dira hitz guzti hauek. Kuriositate bezala aipatu, *Cantar del mio cid* XIII. mendeko liburuak zenbait testuetan "anaia" euskal hitzaren aipamena.



ITSASKLIK

Gogoratu agenda eguneratua eta bestelako albisteak Itsaskliken dituzula. Aplikazioak dagoenaren berri emango dizu abisu bidez, eta eskaera zein erreserbak egiteko aukera ere izango duzu.

telefono interesgarriak

Udaletxea	943 881170
• Gizarte Langilea	
• Udal Arkitektoa	
• Epaitegia	
Haurreskola	943 164831
Herri Eskola	943 887704
Arbel-Aitz elkarte	943 881339
Itsaskoop janari denda	722 366 173
Arrastoa Botika	943 882148
Medikua	943 007635
Kaxintane Taberna	606 756551
Nautiko Taberna	943 880012
Izaskun Hotela	943 880012
Izaskun Ilepaindegia	943 160285
Sasieta	943 161555
Traste Zaharrak	943 161590
Taxi (Ordizia)	678 035788

agenda

MARTXOA

- 4ean:** Emakume eguneko bazkaria. 14:00etan, Arbelaitz elkarte.
- 8an:** Emakumearen eguneko elkarretaratzea.
- 10ean:** Oihalezko konpresak egiteko tailerra. 17:30ean, Kulturgunean.
- 11an:** Harri adiko ekitaldia.
- 15ean:** Herri bizitza batzordea 18:30ean, Kulturgunean. Herri eguna antolatze bilerak irekia 19:00etan.
- 18an:** Mendi irteera.
- 29an:** Eskola kirolaren inguruko hausnarketa 2. saioa. 17:00etan, Kulturgunean.

APIRILA

- 19an:** Herri bizitza batzordea (18:00) Estitxu Irisarri eta Agurtzane Anduezen "Oinarrizko hiztegi poetiko bifokala – SORGINen ARTEan Zugarramurdi" liburuaren aurkezpena.
- 24-28an:** Kirol astea.

MAIATZA

- 3,6,7an:** Urkiko jaiak.
- 10ean:** Jai batzordea 19:00etan Kulturgunean.
- 13-14ean:** Urkiko asteburu magikoa.
- 15-19an:** Kulturartekotasun erakusketa, kulturgunean (Kuba).
- 26an:** "Kale gorrian" kale antzerkia 18:30ean, Plazan.

Ale honetan parte hartu dutenak:

Ainhua Barandiaran
 Anne Garcia
 Bizi Nahi elkarte
 Danel Etxeberria
 Eneritz Maiz
 Erkuden Mendizabal
 Gaztelekuko gazteak
 Iñaki Aizpuru
 Iturriziki guraso elkarte
 Haur eskola
 Hitzar komunitatea
 Jone Etxeberria
 Jone Iturrioz
 Maite Lasa
 Mikel Mendizabal
 Nagore Etxeberria
 Nerea Manzisidor
 Ongizate lantaldea
 Unai Aldasoro
 Urkipe eskola

Itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herriitik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70
itsasondo2.0@itsasondo.eus

Lege gordailua:
 SS-297-2010

ISSN:
 2171-5572

**GOGORARAZTEN DIZUEGU
 HURRENGO ALEA UZTAILEAN
 IZANGO DUZUTELA ETXEAN.**



**UDALERRI
 EUSKALDUNEN
 MANKOMUNITATEA**